**Ayuntamiento de Barañáin**
**Barañaingo Udala**

Servicio Social de Base
Oinarrizko Gizarte Zerbitzua

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.-
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Tel.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

# CONVOCATORIA QUE REGULA LA SOLICITUD Y CONCESIÓN DE PRESTACIONES ECONOMICAS PARA ALIMENTACION EN CENTROS ESCOLARES. CURSO 2022/23

## A. ENTIDAD CONVOCANTE:

1. **Administración convocante:** Excmo. Ayuntamiento de Barañáin.
2. **Órgano concedente:** Junta de Gobierno Local.
3. **Área gestora:** Servicios Sociales.
4. **Órgano instructor:** Secretaría.

## B. OBJETO, CONDICIONES, REQUISITOS Y FINALIDAD DE LA CONCESIÓN DE SUBVENCIÓN:

### 1. Objeto de la convocatoria:

La presente convocatoria tiene por objeto desarrollar el procedimiento para la concesión, en régimen de evaluación individualizada, en materia de Servicios Sociales de las subvenciones destinadas a prestaciones económicas para alimentación en comedores escolares a unidades familiares, siempre que se reúnan las condiciones y requisitos establecidos en esta convocatoria.

### 2. Finalidad de la convocatoria:

La finalidad de esta convocatoria es:

2.1. Facilitar la conciliación de la vida laboral de aquellos padres/madres y/o tutores/as legales, estando el tema justificado por la imposibilidad de que los/as niños/as puedan comer en su domicilio debido a situaciones relacionadas con:

2.1.1. La actividad laboral de todas las personas responsables (padre, madre u otras personas adultas). Se entenderá que requiere conciliar la vida laboral y familiar cuando la actividad laboral se desarrolle por un tiempo de cuatro horas o más / día y/o coincida con el horario de la comida.

2.1.2. Formación y/o promoción laboral cuyo objetivo principal y único sea la búsqueda y el acceso al empleo de sus responsables. Se contemplarán cursos de formación de media / larga duración.

# IKASTETXEETAN JATEKO DIRULAGUNTZEN ESKAERA eta EMAKIDA ARAUTZEN DUEN DEIALDIA. 2022/23 IKASTURTEA

## A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. **Administrazio deitzailea:** Barañaingo Udal Txit Gorena.
2. **Organo emailea:** Tokiko Gobernu Batzordea.
3. **Arlo kudeatzailea:** Gizarte Zerbitzuak.
4. **Instrukzio-organoa:** Idazkaritza.

## B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK eta HELBURUA:

### 1. Deialdiaren xedea:

Deialdi honen helburua da eskola-jantokietan elikatzeko prestazio ekonomikoetarako dirulaguntzak familia-unitateei emateko prozedura garatzea, banakako ebaluazioko araubidean, gizarte-zerbitzuaren arloan, baldin eta deialdian ezartzen diren baldintza eta betekizunak betetzen badira.

### 2. Deialdiaren helburua:

Deialdiaren xedea hau da:

2.1 Aiten/Amen eta/edo Legezko tutoreen lan-bizitza bateragarri egitea, baldin eta haurrek ezin badute etxean bazkaldu arrazoi hauetakoren batengatik:

2.1.1 Pertsona erantzule (aita, ama edo beste helduren bat) guztien lan-jarduera. Ulertuko da beharrezkoa dela lan- eta familia-bizitza bateragarri egitea lan-jarduera lau orduz edo gehiagoz egiten bada egunean eta/edo bat egiten duenean bazkaltzeko orduarekin.

2.1.2 Lan-prestakuntza eta/edo -sustapena, baldin eta haren helburu nagusi eta bakarra erantzuleek lana bilatu eta lanean hastea. Iraupen ertaineko/luzeko prestakuntza-ikastaroak aintzat hartuko dira.

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.-
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Tel.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

2.2. Facilitar la conciliación de la vida familiar de los padres, madres, y/o personas que ostenten la tutoría legal, en quienes concurra, en una misma persona la doble condición de cuidador/a tanto de personas dependientes, como de menores, no habiendo posibilidades de compartir dichas responsabilidades con otra persona adulta dentro del hogar.

2.3. Garantizar el mínimo dietético de una comida diaria completa y equilibrada a los/as menores integrados/as en familias afectadas por circunstancias de problemática de índole económica y/o sanitaria.

2.4. Presentar la familia una situación de déficit de capacidades parentales, ante lo que la asistencia al comedor sea un recurso preventivo y de protección para el/la niño/a.

## 3. Condiciones , requisitos y plazo de realización de las actividades subvencionables.

### 3.1. Condiciones de la convocatoria.

La presente convocatoria está orientada a subvencionar a las familias con residencia y empadronamiento en Barañáin con menores matriculados/as en Escuelas Infantiles y centros de Educación Infantil y Educación Primaria públicos y concertados de Barañáin, para el curso escolar 2022-23 en los siguientes períodos:

- Septiembre-diciembre 2022
- Enero-junio 2023

La ayuda económica a percibir podrá ser modificada debido a las diferentes variables en la situación de los/as solicitantes cuantas veces sea preciso a propuesta justificada del/de la Trabajador/a Social. Del mismo modo, la subvención podrá otorgarse para un período inferior a la fecha límite establecida por las mismas variables.

### 3.2. Requisitos para obtener la condición de persona o entidad beneficiaria

Podrán obtener la condición de beneficiarias las personas que se encuentren en la situación que fundamenta la concesión de la subvención y en las que concurran las circuntancias previstas a continuación:

1. Encontrarse empadronados en Barañáin padre, madre o pareja de hecho o tutores/as y menores, y residir efectivamente en el municipio de Barañáin, desde el momento de la solicitud y mientras se perciba la ayuda.
2. Manifestar y tener necesidad de hacer uso del comedor escolar por alguna de las situaciones

2.2 Aiten, amen eta/edo legezko tutoretza dutenen familia-bizitza bateragarri egitea, baldin eta zainketa-lana, bai mendeko pertsonena, bai adingabeena, pertsona berak egiten badu eta ezinezkoa bada zainketa-ardura horiek etxeko ezein heldurekin partekatzea.

2.3 Gutxieneko dietetikoa, hau da, otordu oso eta orekatu bat eguneko, bermatzea ekonomia- eta/edo osasun-motako arazoek ukitutako familien barruko adingabeentzat.

2.4 Familiak guraso-gaitasun urriko egoera izatea; horren ondorioz, jantoki batera joatea prebentzio- eta babes-baliabidea da haurrarentzat.

## 3. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

### 3.1. Deialdiaren baldintzak:

Deialdi honek dirulaguntzak eman nahi dizkie Barañainen bizi eta erroldatuta dauden eta adingabeak Barañaingo haur-eskoletan eta Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, publikoetan nahi hitzartuetan, izena emanda dituzten familiei, 2022-23 ikasturterako, aldi hauetan:

- 2022ko irailetik abendura.
- 2023ko urtarriletik ekainera.

Jasoko den laguntza ekonomikoa aldatu ahalko da eskatzaileen egoeraren aldagaien arabera, behar bezainbeste alditan, gizarte-langilearen proposamen justifikatuaren bidez. Halaber, aldagai horiek ezarritako muga-egunerako baino lehenagorako eman ahalko da dirulaguntza.

### 3.2. Entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Onuradun izan ahalko dira dirulaguntza emateko oinarri hartutako egoeran dauden pertsonak, baldin eta baldintza hauek gertatzen badira:

1. Aita, ama edo izatezko bikotea edo tutoreak eta adingabeak Barañainen erroldatuta egotea eta bertan egiazki bizitzea, eskaera egiten denetik eta laguntza jasotzen den bitartean.
2. Adieraztea eskola-jantokia erabili beharra dutela eta beharra egiazki izatea, deialdiaren

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.-
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Tel.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

recogidas en el punto 2 del apartado objeto de la convocatoria.

3. Contar con unos ingresos familiares brutos por todos los concepctos inferiores al 175% del importe de la Renta Garantizada vigente en el momento de la tramitación, que le pudiera corresponder según el número de personas de la unidad convivencial periodificado mensualmente.
4. Estar al corriente de sus obligaciones tributarias en el Ayuntamiento de Barañáin. No obstante lo anterior, se podrá conceder auxilio económico a particulares que se hallen incursos/as en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas contraídas con el Ayuntamiento de Barañáin, en situaciones de urgente necesidad de alimentación de niños/as, de familias atendidas por el Servicio Social o en situación de exclusión social, extremo que se hará constar en el informe de la Trabajadora Social.
5. Los Servicios Sociales Municipales podrán presentar informe razonado referente a situaciones excepcionales no contempladas en los requisitos anteriores, en el caso de manifestar necesidad objetiva de hacer uso del comedor escolar por presentar carencias económicas o porque éste sirva de garantía para mantener la escolarización, y como medio de atención de menores que presenten carencias en sus cuidados que puedan implicar desprotección. Para ello se aportarán los informes técnicos correspondientes emitidos por: Servicio Social de Base, centros escolares, centro de salud….. Únicamente se atenderán situaciones excepcionales de alumnado de centros escolares de Barañáin y de centros públicos de fuera de la localidad. En estos casos el órgano competente para adoptar la resolución pertinente será la Junta de Gobierno Local.
6. La unidad perceptora no podrá contar con unos ingresos brutos anuales en el año de presentación de la solicitud, ya sea en concepto de rentas, retribuciones, pensiones o de cualquier otro tipo superiores al 175% del importe de la Renta Garantizada vigente en el momento de la tramitación, que pudiera corresponder según el número de personas de la unidad convivencial periodificado mensualmente.

Con carácter anual, se realizará modificación de los baremos económicos, atendiendo al incremento anual de la cuantía de la Renta Garantizada.

A tal efecto se entenderá por:

xede den ataleko 2. puntuan ezartzen diren arrazoietako batengatik.

3. Familiaren diru-sarrera gordinak, kontzeptu guztiak barne, tramitazioan zehar indarrean dagoen errenta bermatua baino %175 txikiagoak izatea; bizikidetza-unitatearen pertsona kopuruaren araberako errenta bermatua kontuan hartuko da, hilez hileko alditan.
4. Egunean izatea zerga-betebeharrak Barañaingo Udalarekin. Aurrekoa gorabehera, laguntza ekonomikoa eman ahalko zaie Barañaingo Udalarekin zorrak izateagatik premiamendu-bidean dauden kobratze-prozedurak dituzten partikularrei, baldin eta haurrak elikatzeko premia larrian badaude, Gizarte Zerbitzuak artatutako familiarenak badira edo gizarte-esklusioko egoeran badaude. Hori guztia gizarte-langilearen txostenean jasoko da.
5. Udalaren Gizarte Zerbitzuek txosten arrazoitua aurkeztu ahalko dute aurreko baldintzetan agertzen ez diren salbuespen-egoerei buruz, baldin eta eskola-jantokia erabiltzeko behar objektiboa adierazten bada gabezia ekonomikoak izateagatik edo eskola-jantokia berme delako eskolatuta jarraitzeko, eta, baita ere, zainketetan gabeziak, babes-eza ekar dezaketenak, agertzen dituzten adingabeak artatzeko modu gisa. Horretarako, ondokoek egindako beharrezko txosten teknikoak emango dira: Oinarrizko Gizarte Zerbitzua, ikastetxeak, osasun-etxeak... Barañaingo ikastetxeetako eta Barañaindik kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleen salbuespeneko egoerak baino ez dira artatuko. Kasu horietan, Tokiko Gobernu Batzarra izango da beharrezko ebazpena emango duen organo eskuduna.
6. Unitate jasotzailearen urteko diru-sarrera gordinak eskaera aurkeztu den urtean, izan errentak, ordainsariak edo pentsioak, izan beste motaren batekoak, ezin dira izan tramitazioan zehar indarrean dagoen errenta bermatua baino %175 handiagoak izan; bizikidetza-unitatearen pertsona kopuruaren araberako errenta bermatua kontuan hartuko da, hilez hileko alditan.

Urte oro, baremo ekonomikoak aldatuko dira, errenta bermatuaren zenbatekoaren urteko hazkundearekin bat.

Horretarako, definizio hauek kontuan hartuko dira:

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.-
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Tel.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

Núcleo familiar: el formado por la persona solicitante, en su caso con su cónyuge o persona con quien mantenga análoga relación de afectividad, conforme al marco legal vigente, y sus hijos e hijas convivientes. Tendrán la misma consideración que estos o estas:

- Los/as menores en situación de acogimiento familiar administrativo o judicial.
  Los/as hijos/as que vivan temporalmente fuera del domicilio familiar en razón de la proximidad al centro educativo en el que cursen estudios.

Unidad familiar: la formada por la persona solicitante y, en su caso, la que conviva con ella, unida en una relación conyugal o análoga relación de afectividad, así como las personas que convivan y mantengan con aquella una relación de parentesco hasta el segundo grado de consanguinidad, incluidas aquellas personas que a través de la figura del acogimiento familiar tengan o hayan tenido regulada la guarda legal, o hasta el primero de afinidad. Las unidades familiares podrán estar compuestas de uno o varios núcleos familiares.

Con carácter general se considerará unidad perceptora a efectos de las prestaciones económicas para alimentación en centros escolares lo definido como Unidad Familiar.

Excepcionalmente se considerarán más de una unidad perceptora en la misma unidad familiar (aunque convivan en el mismo domicilio) cuando:

- La unidad familiar esté integrada por más de un núcleo familiar y uno de ellos sea familia formada por una sola persona adulta con hijos/as a su cargo.
- Existan dos núcleos familiares con menores dentro de la unidad familiar, siendo o no familia formada por una sola persona adulta con hijos/as a su cargo.

El cálculo de los ingresos brutos anuales se hará contabilizando todos los percibidos por cualquiera de las personas integrantes de la unidad perceptora que viven en el mismo domicilio (se contarán las cuantías brutas deducida la cotización de la Seguridad Social y las cantidades abonadas por derechos pasivos, mutualidades de carácter obligatorio o similares), pensiones, prestaciones, subsidios, y cualquier otro), siendo considerada la situación económica real del año en curso.

Familia-nukleoa: eskatzailea eta, halakorik balu, ezkontzaren bidez edo pareko afektibitate-harreman baten bidez harekin bizi dena, indarreko lege-esparruarekin bat, eta harekin bizi diren seme-alabak. Haien kontsiderazio berdina izango dute:

- Familia-abegiko egoeran dauden adingabeak, administrazioak edo auzitegiak agindura.
  Ikasten ari diren ikastetxetik hurbilago egoteko aldi baterako familiaren etxetik kanpo bizi diren seme-alabak.

Familia-unitatea: eskatzailea eta, halakorik balu, ezkontzaren bidez edo pareko afektibitate-harreman baten bidez harekin bizi dena, edo harekin bizi eta bigarren gradurainoko odol-ahaidetasuneko lotura dutenak, barne hartuta familia-abegiaren figuraren bidez legezko zaintza araututa duten edo izan dutenak, edo lehen gradurainoko ezkontza-ahaidetasunekoa dutenak. Familia-unitateek familia-nukleo bakarra edo gehiago izan ditzakete.

Oro har, familia-unitate gisa definitutakoa hartuko da unitate hartzailetzat ikastetxeetan elikatzeko prestazio ekonomikoen ondorioetarako.

Salbuespenez, unitate hartzaile bat baino gehiago aintzat hartuko dira familia-unitate berean (etxe berean bizi badira ere) honako egoera hauetan:

- Familia-unitatea familia-nukleo batek baino gehiagok osatzen dutenean eta nukleo horietako bat haren ardurapean seme-alabak dituen heldu bakar batek osatzen duenean.
- Adingabeak dituzten bi familia-nukleo daudenean familia-unitatearen barruan, haren ardurapean seme-alabak dituen heldu bakar batek osatutako familia izan ala ez.

Urteko diru-sarrera gordinen kalkulua egiteko, etxebizitza berean bizi diren unitate jasotzaileko edozein pertsonak jasotako guztiak kontabilizatuko dira (Gizarte Segurantzaren kotizazioari kendutako zenbateko gordinak zenbatuko dira, eta eskubide pasiboengatik, nahitaezko mutualitateengatik edo antzekoengatik ordaindutako kopuruak), baita pentsioak, prestazioak, subsidioak eta beste edozein ere, eta uneko urteko egoera ekonomiko erreala hartuko da kontuan.

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.-
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Tel.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

En este apartado se tendrán en cuenta las minoraciones correctoras derivadas de las circunstancias siguientes:

- Familia formada por una sola persona adulta con hijos/as a su cargo (viudos/as, separados/as, solteros/as).
- Alguna persona integrante de la familia tenga reconocida una discapacidad con un porcentaje igual o superior al 65%.
- Trabajo o formación de larga duración/prelaboral fuera del hogar de las personas responsables de los/as menores.

En aquellas solicitudes en que se justifiquen estas circunstancias, se descontará de los ingresos brutos anuales una cantidad equivalente a 0,25 veces el S.M.I. anual, esto es 3.500,00 euros para el año 2022, por la primera minoración correctora y 0,125 veces el S.M.I. anual para las siguientes, es decir 1.750,00 euros para el año 2022, no obstante, si durante el año 2022 se modifica la cuantía del S.M.I., será esa la cifra de referencia.

En el caso de que, en el periodo de concesión de la prestación económica para alimentación en centros escolares, varíe sustancialmente la situación económica de la unidad perceptora beneficiaria de la prestación (aumento o reducción de ingresos) se tendrán en cuenta los ingresos que se prevé va a obtener la unidad familiar durante los meses en los que continúe vigente la prestación tras la comunicación del cambio en la situación familiar.

**3.3. Plazo de realización de las actividades subvencionables**

Abarca el período de vigencia de la convocatoria, es decir, el período de septiembre a diciembre 2022 y el período enero a junio 2023.

**C. CRÉDITOS PRESUPUESTARIOS, CUANTÍA TOTAL MÁXIMA Y CUANTÍA INDIVIDUALIZADA DE LA SUBVENCIÓN:**

**1. Cuantía máxima convocada dentro de los créditos disponibles.**

Para el curso escolar 2022/23, se prevé una dotación máxima de:

- 1º periodo: Septiembre a diciembre 2022, 7.500,00 €.
- 2º periodo: Enero a junio 2023, 12.500,00 €.

Atal honetan, ondoko inguruabar hauetatik eratorritako minorizazio zuzentzaileak kontuan hartuko dira:

- Haren ardurapean seme-alabak dituen heldu bakar batek osatutako familia (alargunak, bananduak, ezkongabeak).
- Familia osatzen dutenetakoren batek % 65eko edo gehiagoko desgaitasuna aitortua izatea.
- Adingabeen ardura dutenek iraupen luzeko/lanaurreko etxetik kanpoko lana edo prestakuntza izatea.

Inguruabar horiek justifikatzen dituzten eskaeretan, urteko diru-sarrera gordinei honako kopuru hau deskontatuko zaie: urteko LGSa bider 0,25; hau da, 3.500,00 euro 2022rako, lehenengo gutxiagotze zuzentzaileagatik, eta urteko LGSa bider 0,125 2022rako; hau da, 1.750,00 euro 2022rako. Hala ere, 2022an erreferentziako LGSren zenbatekoa aldatzen bada, kopuru hori izango da.

Ikastetxeetan elikatzeko prestazio ekonomikoa ematen den aldian, prestazioa jasotzen duen unitatearen egoera ekonomikoa (diru-sarrerak handitzea edo murriztea) nabarmen aldatzen bada, familia-unitateak familia-egoeraren aldaketa jakinarazi ondoren prestazioak indarrean jarraitzen duen bitartean lortuko dituen diru-sarrerak hartuko dira kontuan.

**3.3 Diruz lagundu daitezkeen jarduerak egiteko epea:**

Deialdiaren indarraldia da, hau da, 2022ko irailetik abendura arte eta 2023ko urtarriletik ekainera arte.

**C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEKO ZENBATEKO OSOA eta BANAKAKO ZENBATEKOA:**

**1. Deialdiaren gehieneko zenbateko osoa kreditu erabilgarrien barruan:**

2022/23 ikasturterako, gehieneko zenbateko hau ezarri da:

- 1. aldia: 2022ko irailetik abendura arte, 7.500,00 €.
- 2. aldia: 2023ko urtarriletik ekainera arte, 12.500,00 €.

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.-
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Tel.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

Si en el transcurso de la ejecución de las presentes bases, por necesidades del servicio, fuera necesario superar la dotación contemplada en alguno de los dos períodos mencionados, se concederán prestaciones económicas para alimentación en centros escolares siempre que exista saldo suficiente en la partida presupuestaria de referencia.
Agotado el saldo de la partida presupuestaria el Ayuntamiento de Barañáin no estará obligado a dotar de más fondos a este programa.

Sin perjuicio de lo arriba indicado, este crédito se podrá incrementar en una cuantía adicional, bien por haberse reconocido o liquidado obligaciones derivadas de otras convocatorias por importe inferior a la subvención concedida, o bien como consecuencia de una generación, una ampliación o una incorporación de crédito, sin que ello implique la apertura de una nueva convocatoria.

2. **Partida presupuestaria.**
41 23181 48000 *Ayudas Económicas Emergencia Social.*

3. **Cuantía individualizada máxima y criterios para su determinación.**
El importe de la subvención a percibir quedará determinado en función de los límites de ingresos de la unidad perceptora solicitante que se establece en el punto B.3.2 de esta convocatoria.
Para calcular el porcentaje de ayuda económica que corresponderá a cada unidad familiar se utilizará la siguiente fórmula:

200 - (Ingresos brutos anuales unidad perceptora x 100) =
Tope anual de Renta de Inclusión

El Ayuntamiento concederá a cada familia una ayuda económica, cuyo importe será el resultado de aplicar a una cantidad fija por niño/a, día y centro escolar el porcentaje que le corresponda según la fórmula anterior.

No se concederán ayudas económicas superiores al 75 %, aunque así lo indique el resultado de la fórmula a aplicar. No obstante en ningún caso la cuantía niño/a/día que subvencione el Ayuntamiento de Barañain podrá superar la cuantía máxima establecida por niño/a/día en el centro público que más subvención obtenga.

Las ayudas económicas deberán concederse previa comprobación de su manifiesta necesidad y de la insuficiencia de ingresos. Dichas ayudas serán

Oinarri hauek exekutatu bitartean, eta zerbitzuaren beharrak direla eta, aipatutako bi aldietako batean ezarritako zenbatekoa handitzea beharrezkoa izango balitz, ikastetxeetan elikatzeko prestazio ekonomikoak emango dira baldin eta erreferentziako aurrekontu-partidan nahikoa saldorik balego.
Aurrekontu-partida agortuta, Barañaingo Udala ez da behartuta egongo programa honi funts gehiago ematera.

Goian adierazitakoari kalterik egin gabe, kreditu horri beste zenbateko bat gehitu ahal izango zaio, emandako diru-laguntza baino txikiagoa izateagatik beste deialdi batzuetatik eratorritako betebeharrak aitortu edo likidatu direlako, edo kreditua sortu, zabaldu edo gehitu delako, baina horrek ez du esan nahi beste deialdi bat ireki behar denik.

2. **Aurrekontu-partida:**
41 23181 48000 *Larrialdi sozialeko laguntza ekonomikoak.*

3. **Banakako, gehieneko, zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak:**
Jaso beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa deialdi honen B.3.2 puntuan ezarritako unitate jasotzailearen diru-sarreren mugen arabera zehaztuko da.
Familia-unitate bakoitzari dagokion laguntza ekonomikoaren ehunekoa kalkulatzeko, formula hau aplikatuko da:

200-(Unitate jasotzailearen urteko diru-sarrera gordinak x 100)= Gizarteratze-errentaren urteko gehieneko muga

Udalak laguntza ekonomiko bat emango dio familia bakoitzari, eta haren zenbatekoa honen emaitza izango da: aurreko formularen araberako ehunekoa aplikatzea zenbateko finko bati haur, egun eta ikastetxe bakoitzeko.

Ez da % 75etik gorako laguntza ekonomikorik emango, aplikatu beharreko formularen emaitzak hala adierazten badu ere. Hala ere, Barañaingo Udalak diruz laguntzen duen haur/eguneko zenbatekoak ezingo du inola ere gainditu dirulaguntza gehien lortzen duen ikastetxe publikoan haur/egun bakoitzeko ezarritako gehieneko zenbatekoa.

Laguntza ekonomikoak eman aurretik, egiaztatuko da behar-beharrezkoak direla eta familia-unitatearen diru-sarrerak nahikoak ez direla.

**Ayuntamiento de Barañáin**
**Barañaingo Udala**

Servicio Social de Base
Oinarrizko Gizarte Zerbitzua

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.-
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Tel.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

en todo caso, subsidiarias y, en su caso, complementarias de cualquier prestación pública que pudiera corresponder a la persona beneficiaria, o a cualquiera de las personas de la unidad perceptora, por este mismo concepto.

Estas ayudas tendrán carácter finalista, debiendo destinarse únicamente al objeto por el que hayan sido concedidas.

**4. Posibilidad de prodecer a prorrateo.**

No procede el prorrateo.

## D. OBLIGACIONES DE LA PERSONA BENEFICIARIA:

Son obligaciones de la persona beneficiaria de la subvención:

- Cumplir el objetivo y realizar las tareas acordadas con el personal técnico.
- Justificar ante responsables de programas de referencia de Servicios Sociales, el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.
- El sometimiento a cualesquiera actuaciones de comprobación que se efectúen por los órganos competentes para ello, en relación con las subvenciones concedidas o recibidas.
- Informar de toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones incompatibles dará lugar a la modificación de la resolución de la concesión.
- La familia perceptora adquiere el compromiso de hacer uso del comedor escolar durante el tiempo de concesión de la subvención. A este fin el Ayuntamiento comprobará de oficio si se hace uso o no del mismo, en cuyo caso si durante el período de tiempo comprendido entre septiembre de 2022 y enero de 2023 no se hiciera uso del mismo, se procederá a dar de baja definitiva de la subvención concedida, a partir del mes de febrero de 2023.En ningún caso se subvencionarán los días de no asistencia al comedor.

## E. PRESENTACION DE SOLICITUDES

**1. Lugar de presentación de las solicitudes:**
Las solicitudes deberán presentarse:

Laguntza horiek, edozein kasutan, subsidiarioak izango dira, eta, kontzeptu horrengatik onuradunak, edo bizikidetzako unitate hartzailearen edozeinek, jaso lezakeen edozein prestazio publikoren osagarriak betiere.

Laguntza horiek helburu jakin baterako izango dira, eta eman diren helbururako baino ez dira erabiliko.

**4. Hainbanatzeko aukera.**

Ez da hainbanatu behar.

## D. PERTSONA ONURADUNAREN BETEBEHARRAK:

Honako hauek dira dirulaguntzaren pertsona onuradunaren betebeharrak:

- Helburua betetzea eta langile teknikariekin adostutako atazak egitea.
- Gizarte Zerbitzuetako erreferentziako programen arduradunen aurrean justifikatzea baldintzak eta betebeharrak bete direla, bai eta jarduera egin dela eta dirulaguntza eman edo erabiltzeko arrazoia izen den xedea ere bete dela.
- Eskumena duten organoek egin lezaketen edozein egiaztapen-jarduketaren mende geratzea, emandako edo jasotako dirulaguntzei dagokienez.
- Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu diren baldintzen aldaketa guztien berri ematea; kasu guztietan, beste dirulaguntza bateraezin batzuk aldi berean eskuratzen badira, dirulaguntzak emateko ebazpena aldatu ahalko da.
- Familia hartzaileak dirulaguntzaren indarraldian zehar eskola-jantokia erabiliko duelako konpromisoa hartzen du. Xede horretarako, udalak ofizioz egiaztatuko du erabiltzen ari den ala ez. Hartara, 2022ko irailaren eta 2023ko urtarrilaren arteko aldian erabiliko ez balitz, emandako dirulaguntzaren behin betiko baja egingo da 2023ko otsailetik aurrera. Inola ere ez dira diruz lagunduko jantokira joaten ez diren egunak.

## E. ESKAERAK AURKEZTEA

**1. Eskaerak non aurkeztu:**
Eskabideak honela aurkeztu beharko dira:

**Ayuntamiento de Barañáin**
**Barañaingo Udala**

Servicio Social de Base
Oinarrizko Gizarte Zerbitzua

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.-
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Tel.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

-De forma presencial en la OAC del Ayuntamiento de Barañain y/o en el SSB de Barañain.
-De forma telemática en el Registro Electrónico del Ayuntamiento de Barañain, a través de la sede electrónica del Ayuntamiento de Barañain en la dirección www.baranain.es.

## 2. Plazo de presentación de solicitudes:

Plazo de presentación ordinario:
Las solicitudes deberán presentarse en el registro electrónico del Ayuntamiento de Barañain, en un plazo de 15 días hábiles, contado a partir del día siguiente de la publicación de las bases en el Boletín Oficial de Navarra y antes de las 23:59 horas del último día hábil de la presentación de solicitudes o si la solicitud se realiza de forma presencial a través de la OAC y/o en el SSB de Barañain, antes de las 14:00 horas del último día hábil de presentación de solicitudes. Una vez registrada la solicitud, se concertará cita con el/la Trabajador/a Social. En dicha cita se entregarán los documentos necesarios para realizar el trámite.

La presentación de solicitudes y valoración de expedientes fuera de plazo ordinario, sólo se tramitarán por las siguientes razones de las que se deberá dejar constancia expresa en el informe que realice el personal técnico, haciendo constar la causa concreta que motiva la presentación fuera de plazo:

- Solicitudes de nueva inscripción bien por inicio de la escolarización, bien por traslado de centro.
- Situaciones sobrevenidas que impliquen un cambio sustancial de la situación familiar, económica y/o social.
- Comienzo de actividad laboral y/o formativa de todas las personas responsables tras finalizar el período ordinario.
- Traslado de municipio.
- Situaciones familiares que por factores socio-sanitarios graves o circunstancias especiales (se aportarán los informes técnicos que correspondan) requieran el recurso de comedor escolar a favor de los/as menores.

Las personas beneficiarias sólo podrán obtener subvención desde la fecha en la que se produzca el hecho causante de la tramitación fuera de plazo y en ningún caso tendrán carácter retroactivo.
La concesión de las ayudas presentadas fuera del plazo ordinario, quedará supeditada a la existencia de crédito en la correspondiente partida presupuestaria.

- Aurrez aurre, Barañaingo Udaleko OAC bulegoan eta/edo Barañaingo OGZan.
- Telematikoki, Barañaingo Udalaren Erregistro Elektronikoan, Barañaingo Udalaren egoitza elektronikoaren bidez, www.barañain.eus helbidean.

## 2. Eskaerak aurkezteko epea:

Aurkezteko epe arrunta:
Eskabideak Barañaingo Udalaren erregistro elektronikoan aurkeztu beharko dira, 15 egun baliodunеko epean, oinarriak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta eskabideak aurkeztu diren azken egun baliodunеko 23:59ak baino lehen, edo, eskabidea aurrez aurre egiten bada OACen eta/edo Barañaingo OGZaren bidez, eskabideak aurkeztu diren azken egun baliodunеko 14:00ak baino lehen. Behin eskaera erregistratu eta gero, hitzordua hitzartuko da gizarte-langilearekin. Hitzordu horretan, izapidea egiteko beharrezkoak diren dokumentuak entregatuko dira.

Eskabideak aurkezteko eta espedienteak epez kanpo baloratzeko, honako arrazoi hauek baino ez dira kontuan hartuko. Arrazoi horiek berariaz jaso beharko dira teknikariek egindako txostenean, eta epez kanpo aurkezteko arrazoi zehatza adierazi beharko da:

- Izena emateko eskaera berriak, bai eskolatzen hasteagatik, bai ikastetxez aldatzeagatik.
- Gerora sortutako egoerak, familiaren egoera ekonomiko eta/edo sozialean aldaketa nabarmena ekarri badute.
- Pertsona erantzule guztiek ohiko epea amaitutakoan hastea lan- eta/edo prestakuntza-jarduera.
- Udalerriz aldatzea.
- Adingabeek eskola-jantokia behar dutela erabakitzera eraman duten familiaren egoera bereziak, alderdi sozio-sanitario larriek edo inguruabar bereziek eraginda (beharrezko txosten teknikoak aurkeztuko dira).

Onuradunek epez kanpoko izapidetzearen gertaera eragilea gertatzen den egunetik aurrera soilik jaso ahal izango dute dirulaguntza, eta inola ere ez dute atzeraeraginezko izaerarik izango.
Epe arruntetik kanpo aurkeztutako laguntzak emateko, dagokion aurrekontu-partidan kreditua egon beharko da.

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.-
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Tel.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

**3. Forma de presentación de solicitudes y de la documentación:**

Las solicitudes deberán formularse mediante instancia/solicitud según modelo oficial del Ayuntamiento de Barañáin, firmada por la persona solicitante o por la persona que ostente la representación legal en su defecto.

